

ESKLUSIBOTASUNA: Nafarroako Gobernuak konfirmatu du Osasunbidean gaizki jokatu dutela eta Ustelkeriaren aurkako Bulegoak onartu egin du LABek salatutako egoera

LAB sindikatuak aurkeztutako salaketa guztietan (11 guztira) konfirmatu da Osasunbidean kontrol falta eta utzikeria egon dela eta jardunbide desegokiak izan direla. Horixe ondorioztatu da Nafarroako Gobernuko Funtzio Publikoko zuzendari nagusiaren 7 ebazpenetan, non salatutako kasuei buruzko ebazpena ematen baita. Gainerako 4 kasuei dagokienez, ez da jarduketarik hasi, fakultatibo horiek une honetan ez daudelako Administrazioan lanean (Osasunbidea eta Ustelkeriaren aurkako Bulegoa arduratu beharko dira kasu horietaz), baina egiaztatu da haietako bakar bati ere ez zitzaiola baimenik eman eginkizun publikoak jarduera pribatuarekin bateratzeko. Jokabide hori falta oso larritzat tipifikatuta dago, eta Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren arabera pertsona horiek zerbitzutik bereizi litezke horregatik.

Horrez gainera, espedienteak Nafarroako Jardunbide Egokien aldeko eta Ustelkeriaren aurkako Bulegoak ere aztertu ditu eta LABek salatutako egoera berretsi du. Hortaz, epea 6 hilabetez luzatzea erabaki ondoren, salatu diren gertakariak eta horien ondorioak sakon ikertuko ditu, Osasunbideari zuzenean eragiten dioten neurrian. Era berean, arlo pribatuan ere lanean aritu direnek bidegabeki jasotako eskusibotasun-osagarria itzultzeko espedienteak ere aztertuko ditu.

LAB sindikatuak uste du Nafarroako Sindikatu Medikoaren (NSM), VOXen, UPNren eta Medikuen Elkargoaren (sindikatuarekin biltzeari uko egin dio) jokaerak eta eskakizunek interes korporatibo eta politiko dituzte, eta horrek kalte egiten diola mediku lanaren duintasunari. Izan ere, praxi txarraren lehen kasua salatu eta konfirmatu zenetik urtebete bete denean, eragile erreakzionario eta eskuin muturreko horiek berriz exijitu dute publikoki eskusibotasuna ken dadila, azken gertakari horiek beren mesederako aprobeztatu nahian. Horixe da, eta ez besterik, LABek zuzendu nahi duen jokabide onartezina. Horregatik, LABek ez du inoiz eraginpeko profesionalen nortasuna eman, eta etorkizunean ere ez du emango.

Interes korporatibo horiek aterabiderik gabeko egoera batera eraman ditu Nafarroako Gobernua, mediku asko eta, bereziki, osasun sistema publikoa. Gauzak horrela, LABek ez du onartuko NSMri inolako pribilegiarik ematea eta, are gutxiago, sindikatu horrek beto-eskubidea erabiltzea. Amaitu da mahai eskusiboen garaia, non langile bakar batzuen interes ekonomikoak asetzeari eta negozio pribatuak bultzatzea bilatzen baitzen, osasun sistema publikoa, langile guztien baldintzak eta herritar guztien eskubideak hobetzeaz ahazturik.

LABek Nafarroako Gobernuari exijitzen dio bere gain har dezala dagokion erantzukizuna eta behar diren neurriak har ditzala Osasunbidean gertatzen ari den eskandalu horri amaiera emateko, horren erantzule zuzena baita. Horrekin batera, Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren ebazpenei men egin diezaiela eskatzen du, eta horren arabera ikuskatu, kontrolatu eta jardun dezala, betiere medikuen lanbidea eta osasun sistema publiko osoa defendatzearen.

Era berean, exijitzen diogu bete dezala Osasunbideko langileekin sinatutakoa eta jar dezala martxan **mekanismo bakar bat jarduera pribatuari buruzko bateragarritasun- eta eskusibotasun-arauak betetzen direla monitorizatzeko eta kontrolatzeko**. Ez dago aitzakiarik, eta LABek ez du inola ere onartuko mahai paraleko bat eratzea NSMrekin, hori bailitzateke otsoa artaldea zaintzen jartzea.

Azkenik, Gobernuari exijitzen diogu bete ditzala bateraezintasun-erregimenari buruz dagozkion eginkizunak, **eremu pribatuan lan egitea eskatzen duen pertsona orok horretarako baldintzak betetzen dituela bermatzen duen lege-sistema baten bidez**; eta sistema horretan oinarrituta eskura dezatela, hala badagokie, eskusibotasunaren osagarria.

Azterturiko kasuak

Osasunbidearen jarrera: “Laissez faire, laissez passer”, hau da, “utzi egiten, utzi pasatzen” eskusibotasun-osagarria kobratzeko eta klinika pribatuetan lan egiteko.

Nafarroako Gobernuko Funtzio Publikoko Zuzendaritzak aztertutako kasuek funtzionatzeko modu bat egiaztatzen dute, eskusibotasun-osagarriaren kobrantzan legea betetzea saihesten duena. Kontu horrek joko baten antzeko funtzionamendu aldrebasa du: osasun sistema publikoan eskusibotasunez aritzeagatik, **hilean 800 eta 1.000 euro arteko osagarri ekonomiko bat kobratzen da konpentsazio gisa, baina profesional batzuek klinika pribatuetako jarduera profesionalari eusten diote, eta, horrela, etekin ekonomiko bikoitza jasotzen dute**. Izan ere, aski ongi dakite Osasunbideak ez duela horren gaineko kontrolik egiten eta ez duela bere eginkizuna betetzen, osagarri hori kobratzeari dagokionez.

- Osasunbideak kobrantza horietan duen erabateko kontrolik eza bereziki nabarmentzen da bi kasutan. Alde batetik, **profesional batek 4 urtez kobratu du eskusibotasun-osagarria eta, aldi berean, arlo pribatuan ere lan egin du, indarrean dagoen araudiak hori berariaz debekatu arren**. LABen salaketaren ondoren, profesional horrek bere egoera erregularizatzea erabaki du, bidegabe jasotako zenbatekoak itzuliz (33.854,08 euro). Beraz, Osasunbidearen jarrera axolagabea ikusita, pentsa liteke LABen salaketagatik ez balitz iruzur hori *sine die* luzatuko litzatekeela.
- Are deigarriagoa da bigarren kasua, beste profesional bati dagokiona. Lehen kasua jendaurrean salatu eta 14 egunera, mediku horrek Osasunbidera jo zuen honako hau adierazteko: «*Nik eskusibotasun erregimenean alta emateko eskaera egin ez badut ere, 2016ko urtarriletik aurrera osagarri hori osorik ordaindu didate*». Osasunbideak akats administratibo bati egotzi dio okerra, eta 2019ko apiriletik 2023ko martxoaren 31ra bitartean bidegabeki jasotako zenbatekoak (38.530,68 euro) erregularizatzeko eta itzultzeko agindua eman du. Ez dira erreklamatu 2016ko urtarrilaren 1etik 2019ko martxoaren 31ra bitartean bidegabeki jasotako zenbatekoak, preskribatuta daudelako. Hortaz, **7 urteko kobrantza bidegabea** egon da, eta, kasu honetan ere, pentsa daiteke ez zela egoera zuzenduko salaketa publikorik egin ez balitz.

LAB sindikatuaren iritziz, praxi txar hori Osasunbideak sortutako eskandalu bat da, oso larria, eta LABek hasiera-hasieratik salatu zuena berresten du: **egoera orokor eta normalizatu baten**

aurrean gaude, eta ez du legea betetzen, eta berehalako inspezio orokor zehatza eskatzen du, irismen zehatza ezagutzeko eta diru publiko guztia berreskuratzeko.

Ildo horretan, nabarmendu behar da ezen, LABen salaketei esker, oraingoz 70.000 euro baino gehiago berreskuratu direla Nafarroako osasungintza publikoarentzat.

Osasunbideko buruak sektore pribatuan aritzeko debekuari ez ikusiarena egitea

Salatutako gainerako kasuek agerian uzten dute Funtzio Publikoko Zuzendaritzak berak Osasunbideari zuzenean aurpegiratzen dion beste jardunbide bat: **medikuen kontratazioetan ingeniari-talarekin konplexu bat errotuta dago Nafarroako Parlamentuaren borondatea hausteko, LAB sindikatuak salatu bezala**. Izan ere, Parlamentuak lege bat onetsi zuen langile publikoek burutzei dagozkien eginkizunak betetzea eta, aldi berean, klinika pribatuetako negozioak mantentzea eragozteko. Arau hori ezartzea gauza logikoa da; izan ere, agerikoa da arlo publikoan zuzendaritza-lanak egin eta, aldi berean, beren osasun negozio pribatuetan etekinak ateratzen saiatzen diren pertsonen interes-gatazkak izaten dituztela; are gehiago kontuan hartzen badugu negozio pribatu horietan ere buru izaten direla kasu askotan. Interes pribatu horrek bazter batean uzten du interes publiko eta orokorreko inpartzialtasun-jarrera oro.

Horrelako kasuetan, Osasunbideak saihestu ohi du langile horiek buru izendatzea. **Horrela, izendapen ofizialik ez dagoenez, burutza lanak egiteagatik hilean 500 euro baino gehiago kobratzen dute beste osagarri baten bidez (“produktibitate-osagarria”), eta legearen arabera nagusiak ez direnez, ezin zaie eragotzi sektore pribatuan jardutea**. Horrela lortzen da bilatutako efektua: osagarri bat kobratzea eta nagusi gisa jardutea, eta, aldi berean, klinika pribatuetan ere lan egin ahal izatea.

Honela azaltzen du egoera hori Funtzio Publikoko zuzendariak: *«indarrean dagoen araudia zorrotz aplikatuta, egitura organikoan burutza asistentzialik ez dagoenez eta haien izendapenik egin ez denez, ez da zilegi urratutzat jotzea aplikagarri zaien dedikazio-erregimena. Hala eta guztiz ere, ezin da ahaztu ezen produktibitate-osagarria hilero ordaintzea –osagarri hori, hasiera batean, salbuespenez baimendu zen bere lanbide kategoriaren eta atal asistentzial bateko burutzaren kategoriaren soldaten arteko aldea aritzeko– justifikatuta dagoela Administrazioaren aldetik bidegabeki aberastea saihesteko, baina, **praktikan, sektore pribatuan aritzeko debekua kentzea dakarrela berekin, zeina zehatz-mehatz ezarriko baitzen formalki izendatua izanez gero burutza asistentzial bat betetzeko; beraz, jardunbide horrekin ez dira betetzen ari indarrean dagoen bateraezintasun-erregimenak profesional horiei ezartzen dizkien helburuak, interes publikoa babesteari dagokionez**».*

- Osasunbidearen arabera, 15 profesional egongo lirateke egoera horretan. Hala ere, zerrenda horretan, beste langileren bat ere sartu beharko litzateke.
- Hori gutxi balitz bezala, **Osasunbideak bazekien salatu eta egiaztatu diren kasu horietako askoren berri, baina, hala ere, ez du deus ere egin**. Are gehiago, klinika pribatuetan jarduera aski ezaguna egiten zuten bi pertsonari burutza bana esleitu zitzaient eta zenbait urtez burutza horiek negozio pribatuarekin uztartu zituzten, horrela jardutea galarazita zuten arren. Kasu horietan, buru gisa ofizialki izendatuak bazeuden ere, inork ez zuen kontrolatu edo ziurtatu klinika pribatuetako jarduera amaituta ote zuten.

Era berean, Funtzio Publikoak eta Ustelkeriaren aurkako Bulegoak jakinarazi dute **2015. urtetik produktibitate-osagarria ordaintzen ari zaiela profesional batzuei existitzen ez diren ataletako burutza-lanak egiteagatik**. Eta ia 9 urte daramatzate horrela, atal horiek egitura organikoan sortu gabe eta haien egoera erregularizatu gabe. Horren ondorioz, Funtzio Publikoko zuzendariak Osasunbideari eskatu dio atal horiek sor ditzala eta burutzak erregelamenduz bete ditzala.

Salatu diren kasuetan inplikatuak dauden 11 pertsona horietatik bakar bati ere ez zitzaion baimendu eginkizun publikoak jarduera pribatuarekin bateratzea

LAB sindikatuak egin dituen 11 salaketetan irregulartasun hori ageri da gutxienez, falta oso larritzat tipifikatuta dagoena.

Izan ere, jarduera pribatu batean aritzen diren langile publiko guztiek bateragarritasun baimena eskatu behar diote Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiari. Zuzendaritza nagusi horren baimena ezinbestekoa da arlo pribatuan aritzeko. Inork arlo pribatuan jarduten badu bateragarritasun baimena jaso gabe, falta oso larritzat har daiteke, eta zerbitzutik bereizteko zehapena jartzen ahal zaio.

Salaketa publikoa egin ondoren, 11 profesional horiek bateragarritasun baimena eskatu dute eta Funtzio Publikoko zuzendariak ia kasu guztietan onartu egin die (bati izan ezik). **Hala ere, ez du inolako ikerketarik egin langile horiek lehenago egindako lan pribatuari buruz, jarduera hori zehapena jartzeko modukoa izan badaiteke ere.** Osasunbideari jakinarazi dio, “behar diren ondorioak izan ditzan”, fakultatibo horiek ez zutela bateragarritasun baimenik eskatu, eta enpresa pribatuan ere lan egiten zutela. Gaur den egunean, Osasunbideak ez du ezertxo ere egin.

LAB sindikatuak irmoki salatzen du funtzionatzeko modu hori, legea betetzen ez duen eta Administrazioak baimentzen duen ondorengo funtzionatzeko modu oso baten hasiera delako. Nafarroako Gobernuak langile horiei bateragarritasun baimenaren eskaera aurkeztua izatea eskatu ez izanak utzikeria handia egon dela erakusten du. Eta, ildo beretik, eskandalagarria da Osasunbideak 800 eta 1.000 euro bitarteko soldata-osagarri bat ordaintzea jakin gabe langileak horretarako aukera duen edo ez.

Harrigarria da, itxaron-zerrenda luzeen testuinguruan, Nafarroako Gobernuak jakin nahi ez izatea bere menpeko langileetatik zenbat aritzen diren klinika pribatuetan lanean eta ea horretarako aukerarik duten. Axolagabekeria horren ondorioz, funtzionatzeko modu horrekin ez da behar bezala bermatzen osasun sistema publikoaren eraginkortasuna eta efizientzia, batez ere itxaron-zerrenda handienak dituzten eremuetan.

Iruñea, 2024ko otsailaren 8a